

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

LAU URTERAKO MEMORIA 2023-2026

Orquesta de Euskadi S.A.

SARRERA

Dokumentu honen bidez, gure orkestrarako 2023tik 2026rako proposatzen ditudan oinarrizko ildoak eta horiek bultzatzen dituen motorra definitu nahi ditut, gure xedearen oinarri gisa; gure ustez, Euskadiko Orkestraren existentzia justifikatzen du horrek.

Gure balioak identifikatzea eta horiei buruz etengabe hausnartzea proposatzen dut, abiapuntu hartuta gure bultzada diren ikuspegia eta xedea –horiei buruzko baterako eta zeharkako lan bat egin genuen 2019an–; eta, hortik, helburuak (kuantifikagarriak, ebaluagarriak eta berrikusgarriak) eta horiek lortzeko estrategiak identifikatzea.

AURREKARIAK

Orkestra helburu hauetarako sortu zen, 1982ko fundazio-estatutuen arabera:

- Euskadiko hezkuntza eta kultura-hedapenari laguntzeko.
- Urteroko biren bitartez kanpora musika-balio berriak proiektatzeko.
- Euskal interprete eta konpositoreentzako pizgarri eta plataforma izateko.
- Gure musika-ekoizpenaren fondo dokumental bat eratzeko era guztietako grabazio eta erregistroen bitartez.
- Euskal musika-sorkuntzaren ezagupena hedatzeko, egindako grabazioak kanal egokietatik banatuz nazioarteko merkatura.

Hori kontuan hartuta, 2019an, gure balioak eta xedea berrikusteko prozesu partekatu bat egin genuen. Inspirazio-dokumentu luze bat izan zen horren ondorioa, eta horren hiru puntu nabarmenduko ditut jarraian:

- *Helburua duen artea*. Pertsonengan arrastoa uztea. Pertsonak eta, beraz, gure gizartea hobetzea.
- *Sentitzeko eta hausnartzeko probokazioa*. sentsibilitate emozionala eta pertsonen hausnarketarako gaitasuna lantzea, garapen pertsonalerako tresna gisa, bizikidetzeta, aniztasuna eta aurrerapen kolektiboa bultzatzen baititu.
- *Kontzientziaz gozatzea*. Izan ere, kultura bateragarria da gozamenarekin, ezagutzarekin eta dibertsioarekin.

Hori esanda, eta xede hori gauzatzeko funtsezko zutabeak identifikatzeko asmoz, garrantzitsua iruditzen zait identifikatzea zein oinarrizko zutabe izan behar ditugun oinarri gure egunerokotasunean gidari izan beharko genituzkeen helburuak eraikitzeke, eta, horietatik abiatuta, nahi dugun noranzkoan goazen ebaluatu ahal izateko adierazleak ateratzeko.

Gure oinarrizko deskribapenean, herrialdeko kultura-proiektu gisa, hitz hauetan laburbildu dugu gure ekintza: *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik bultzatu eta garatua, Euskadiko Orkestra 1982an jaio zen musika ondasun partekatu, ondare aberats gisa hartzen duen gure gizartean. Orkestra, ondorioz, ondare horren gordailuzaina da eta, halaber, aipatua hedatzeko eta garatzeko konpromisoa hartu du. Estatu-mailan erreferentzia den talde sinfonikoa da egun, bere erkidegoan sendoki errotutako taldea (7.000 abonatu ditu eta, batez beste, 150.000 entzule urtero). Bere garaiko orkestra bat da, exigentzia-maila oso handikoa eta garai guztietako musika sinfonikoa hedatzeko konpromiso irmoa duena, baina arretea berezia eskaintzen diona euskal musikaren sorkuntza eta hedatzeari, gure muge barruan baina baita gure herritik at ere.*

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

Aurreko memorietan bezala, dokumentu honetan honako atal hauei buruzko gogoeta labur eta garrantzitsuak egin ditut:

- Berritzea eta proiektzioa.
- Antolaketari eta enpresari buruzko atala.
- Atal orokor estrategiko, artistiko eta enpresariala.

Berritzea eta proiektzioa.

Lehen laburtutako dardara horrekin berarekin eta gure nortasuna, balioak, ikuspegia eta xedea berrikusteko prozesuan jarraitzeko beharra sentituz, lelo eragile bat asmatu genuen: *Batzen gaituen emozioa*.

Horrekin batera, administrazio- eta izendapen-ikuspegitik enpresaren izena Orquesta de Euskadi SA bada ere, gure izen soziala ordenatzeko beharra sentitu genuen, beharrezkoa ez den itzulpenik gabe eta kasu bakoitzean erabilera-protokolo batekin. Harrezkero, izendapen bakar bat bultzatzen dugu, herrialdeko orkestra gisa identifika gaitzaten: *Euskadiko Orkestra* gure inguruan (Espainiako Estatuan eta Iparraldean) eta *Basque National Orchestra*, nazioartean.

Antolaketari eta enpresari buruzko atala.

Hori esanda, gaur proposatzen dudan memoriak etorkizunari begiratuko dio eta, aurrekoetan bezala, egonkortasuna eta proiektzioa bilatuko ditu, etengabeko hobekuntza oinarri hartuta, honako arlo hauetan:

Langileak:

Hutsik dauden postuak ahalik eta azkarren betetzen ahaleginduko gara, eta, batetik, lan-prekariatatea ezabatuko dugu eta, bestetik, urte hauetan guztietan bezala, bake sozialik handiena ekarriko duten elementuak izateko lan egingo dugu, 2018-2021 aldiko Hitzarmen Kolektiboa eta 2022-2024 aldiko hurrengo sinatu ondoren. Bestalde, berriki onartu den Berdintasun Planarekin lotutako neurri guztiak ezarriko ditut.

Baliabide teknikoak:

Instrumentuak, materiala, tresnak eta barne-prozesuak modernizatzeko inbertsioa ere lehenasunezkoak dira, barne-kudeaketako programa informatikoekin (RP; OPAS- Orchestra Planning Administration System) eta kanpo-kudeaketakoekin (sarreraren kudeaketa). Ezarpenean, ezarpenerako aldi baterako laguntzak sartu behar ditugu. Horrez guztiaz gain, Eusko Jaurlaritzaren energia-jasangarritasunari buruzko legeak betetzeko ekintza garrantzitsuak egingo ditugu.

Atal orokor estrategiko, artistiko eta enpresariala. Ardatz nagusiak

Euskadiko Orkestra herrialdeko kultura-tresna bat da. Ondorioz, ibilbide-orri bat ezarri nahi denez behar den «lur-hargune»arekin eta, ondorioz, herrialdeko errealitaterako egokitzapenarekin, proposatzen dudan konfigurazioak lau ardatz nagusi ditu.

Kultura: ziurtatuko dugu eskaintzen dugun artea ahalik eta mailarik handienean dagoela eta erreferentziatza hartuko ditugu Europako antzeko orkestrak, gure entzuleak fidelizatzeko eta horien kopurua areagotzeko. Aldi berean, hausnarketak, emozioa, inspirazioa, hezkuntza eta balio-transmisioa eskainiko dizkiogu gizarteari.

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

Kapitala: ziurtatuko dugu gure programei sostengua emateko behar diren finantza-egonkortasuna eta -hazkuntza ditugula, eta erantzukizun handienarekin kudeatuko ditugu baliabide guztiak, direla dirulaguntza publikoetatik datozenak, direla gureak (sarreraren eta abonuen salmentatik, babesletzetatik, mezenasgoetatik eta kontzertuen salmentetatik lortutakoak).

Gaitasuna: ziurtatuko dugu enpresa modu efektibo eta efizientean kudeatzeko gizatalde eta sistema-garapen egokiak ditugula eta lan-harremana argia eta zintzoa dela noranzko guztietan.

Komunitatea: ziurtatuko dugu euskaldun guztiei modu efektiboan ematen diegula zerbitzua eta dagokigun toki hartzen dugula Euskal Herri osoko arte eszenikoen (eta, zehazki, musikaren arloan) lider gisa eta gure herritik kanpoko horren ordezkari gisa.

Helburuak ardatzaren arabera:

A. KULTURA

1. **Bikaintasun artistikoa: etengabeko hobekuntza**

- a. **Kalitate-estandarra.** Pertzepzio partekatua: zer orkestra nahi dugun kalitateari dagokionez, bai eta zer zuzendari eta bakarlari gonbidatu nahi ditugun ere, gure hazkundeari mesede egin diezaioten.
- b. **Egonkortasun artistikoa.** Irizpide artistikoa, soinu bat, finkatzea eta, aurreko puntuarekin bat, orkestrako kide guztien baterako ikuspegiarekin eraikitzea nahi dugu eta, horretarako, ezinbestekoa da entzunaldi-prozesuetan hautatutako musikarien iraunkortasuna eta zuzendaritza titularraren eta artistikoaren egonkortasuna. Horretarako, formula honen aldekoa naiz: berritzea, aldeek kontratua deuseztatzen dutela jakinarazi ezean, denboraldi bateko aurrerapenarekin.

2. **Euskal Herriko kultura-kohesioko tresna izatea. Finkapen artistiko garrantzitsuak**

Abonu-zikloa finkatzea: Iruñean, Bilbon, Gasteizen eta Donostian, denboraldiko 10 abonuprograma eskainita.

Ikaskuntza-programak egitea: ekoizpen propioak, haurrek eta gazteek ikasiz bizi dezaten gertuko eta zuzeneko musika.

Nazioarteko birak eta kultura-enbaxadore gisa, gure soinu sinfonikoarekin bat datozen edo kontrastatzen duten beste musika batzuk programatzea, konpositoreen grabazioak egitea, eta herrialdeko musika- eta arte-erakundeekin ditugun elkarlanak finkatzea.

3. **Euskal konpositore, instrumentista, zuzendari eta bakarlariarentzako tresna izatea.** Gure musika-ondaretik gure garaiko musikarietaraino, gure abonuzikloaren testuinguruan, grabazioetan edo musika-jaialdietan.

4. **Kontzertua ekitaldi sozial bihurtzen duten elementuak sustatzea.** Gizartea gero eta indibidualistagoa da eta, hori dela eta, gure jarduerak lotura sozialeko eredu gisa proposatu beharrean gaude, musika sinfonikoa auditorium handi batean entzuteak dakarren emozio partekatutik.

5. **Irisgarritasuna.** Entzuleekin –errealak eta birtualak– dugun harremana arintzea eta modernizatzea (entzule gehiago lortzeko eta, aldi berean, gure muga fisikoak azkartasunez eta kalitatez gainditzeko).

B. KAPITALA

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

6. **Eusko Jaurlaritzaren ustiapen-dirulaguntza egokia izatea**, batetik, bultzatzen ditugun programei eusteko eta, bestetik, aldatetara egokitzeko behar diren igoerak planteatzeko, eta hazkundera barne- eta kanpo-proiektzioa aukeren ondoriozkoa izan dadin.
7. **Gure babesleekin dugun harreman fidelizatzea eta babesle berriak sartzeko sustatzea**. Gurekin duten esperientzia areagotzea eta horiek ikusarazteko tresna izatea, kalitatearen adibide gisa.
8. **Mezenasgo pertsonalaren kultura sustatzea eta hedatzea**. Arlo honetako sarrerak finkatzen badira, funts publikoen ekarpena poliki-poliki murriztu ahal izango litzakete epe luzera.
9. **Sarrera- eta abonu-salmentaren prezioak modu orekatuagoan egokitzea**, gure bikaintasun-lana devaluatu gabe, baina kontuan izanda ekarpen publikoak ere onura dakarkiola erabiltzaileari, arazoizko sarrera-prezio batekin.

EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

10. Orkestra musika-jaialdiei, sustatzaileei eta grabazioetarako saltzea sustatzea; betiere, oinarri hartuta orkestrak horietan presentzia iraunkorra izateko lotura egonkorak sortzea.

C. GAITASUNA

11. Euskadiko Orkestra **orkestra sinfoniko handia da, eta, beraz, horren arabera langile artistikoak izatea.**
12. Helburutzat jartzen den jardura egiteko **behar diren teknikariak izatea.**
13. Kalitatezko barne-antolaketako eta musika-tresnekin lotutakorako behar diren **inbertsioak egitea.**

D. KOMUNITATEA

14. **Euskal herritarrekin konektatzeko espazio birtualak eta errealak sortzea.** Horretarako, oinarri hartuko dira komunikatzeko, parte hartzeko plana, eta feedbacka –etengabeko hobekuntzarako oinarri– jasotzeko tresnak.
15. **Musika-programatzaileekin ditugun aliantzak,** herrialdeko tresna gisa bereizten gaituztenak, **ziurtatzea** (Musika Hamabostaldia, ABAO, MusikaMúsica, Musikaste, Ravel jaialdia).
16. **Kolaboratzaile estrategikoekin** (tarteetan, Zinemaldia eta EITB) **lehentasunezko eragileak garelako berrmatzea.** Azken horrekin, baterako proiektuen etengabeko dibertsifikazioa planteatzen jarraitzen dugu, batetik, herrialdeko kultura indartzeko eta, bestetik, Euskadiko Orkestra EITBren euskarrietan ikusarazteko.
17. Abesbatzekin, Musikenerekin eta hezkuntza-komunitatearekin ditugun **elkarlanean aritzeko borondateari eustea.**